



Gabiria, 2015eko apirila

ESKOLA TXIKIEN 28. FESTA: GABIRIA 2015

FESTA EGUNEKO BAZKARIA

Agur t'erdi:

Dakizuen bezala **datarren 2015ko ekainaren 14ean Gabirian** ospatuko da **Eskola Txikietako 28. Festa** eta dagoeneko antolakuntzan erabat murgildurik gaude. Hau horrela, ohikoa den bezala bazkarirako izen -ematea ere lotu beharra daukagu.

Aurtengo bazkaria herriko futbol-zelaian izango da, horretarako prestatutako karpa batean.

Menua eta prezioak:

Helduentzat : 18€.

- Paella.
- Oilasko errea.
- Postrea.
- Edaria (ura, ardoa eta sagardoa), ogia eta kafea.

Haurrentzat: 8€

- Paella.
- Oilasko errea.
- Postrea.
- Ura.

Zenbat heldu eta zenbat haur zareten aipatu beharko duzue **maiatzaren 20a baino lehen**. Zeliako, diabetiko edo antzeko arazoren bat dutenen berri aurrez jakitea eskatzen da.

Karpan 400 lagunentzako tokia izango da. Hau dela eta, eskaerak iristen diren ordenean onartuko dira.

Bazkaria, zuen eskaria jasotzen dugunetik aste beteko epe barruan, hau da; **maiatzaren 27a baino lehen ordaindu** beharko duzue honako kontu honetan: ES80 3035 0006 87 0060020732 Karpan bazkaltzeko txartelak jaiaren egunean jaso ahal izango dituzue antolatuko dugun lekuan.

Eskaerak jasotzeko helbide elektronikoa: ekonomiagabiria@gmail.com

Bestalde, txoznan eta herriko elkarteetan pintxoak eta ogitartekoak eskainiko dira eta etxetik ekarritako bazkaria eta bertan erositakoa jateko gunea ere izango da.

Bertaratuko zaretelakoan agurtzen zaituztegu.

Ondo izan.

Eskola Txikiak Bizirik Gabiria 2015

